



EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA DURANGON

Abertzale baten ibilbidea

■ Txillardegiren «Euskal Herria helburu»an mugimendu abertzalearen historia partziala egiten da. ■ Orain arte publikatu barik zegoen hainbat dokumentu dator bertan. ■ 70. hamarkadan gelditzen da egilea.

Txalapatark aurten aurkezturiko nobedadeen artean, Jose Luis Alvarez Eparantza, Txillardegiren "Euskal Herria helburu" izeneko liburua dugu. Aspaldidanik zeukan ideari jarraituz, oraingo une hau aukeratu du Txillardegik oso arrazoiz simple batengatik: «Oraintxe bukatu dut», esaten du irribarez. Zenbaitek bere liburua hau autobiografia dela esan dute, baina egilearen eritzia beste era batekoa da: «Autobiografia baino gehiago, nik nola esnatu nintzen abertzaletasunera kontatzen da hor, nola jabetu nintzen euskal arazoaz».

DURANGO
A. OKARIZ

"Itinerario de un abertzale de hoy". Erdaraz esanda —berak erdaraz esaten baitu— hau izan liteke beste izenburu bat "Euskal Herriaren helburu" liburu honentzako, Txillardegiren ustez. Berak, eduki, argi dauka zer azaldu nahi izan duen bertan, hots, «Euskal Herriaren arazoaz jabetzeko egin ditudan urratsak».

Urratsak ez badira inoiz gelditzen, Txillardegik kontatu nahi izan dituenak 70. hamarkadara arte soilik iristen dira, arrazoiz konkretu batek eraginda: «Nik —adieratzen du berak— pentsatzen dut gauza berrien notizia erraz lor daitekeela, baina oso zaila dela jakitea nola sortu zen ETA, nola euskara batua, gure kezkak nondik nora joan ziren eta abarrekoak».

Euskara batuari buruzko lehenengo proiektuak kontatzen ditu Txillardegik, baita zergatik 1963an eskatu zuen baja Euskaltzaindian —Euskaltzaindiak ez zuelako ezer egiten euskara batua alde—; Baionan izandako Euskal Idazkaritzaren sorruntza eta segidan honek antolatutako kongresua ere aipatzen dira. ETARI buruz, bestalde, hainbat aburu ematen du, baita hasierako urteetan izandako eztabaida batzuen berri ere, beti ere dokumentazio bidez.


Ildo honetatik jarraituz, ETAn zegoela eta baja eskatu zuenaren berri agertzen da liburuan, «orduan —azaltzen du berak— nik bidali nituen lau txosten eta horiek ez dira ezagutzen normalean, baina hor dago gakoa».

Argudioak eta datuak

Dokumentazioa da, hain zuzen ere, liburu honen funtsezko oinarria. Dokumentu batzuk, komentatzen du Txillardegik, berak zeukan diren —«ez dakit nola salbatu diren»— eta beste batzuk han eta hemen lortu ditu, «eman dezagun Pariseko nere hitzaldia "Frente Abertzale" baten aldekoa, 61ekoa da, hori agertu zen "Vasconia" liburuan, baina ez beste lekuetan. Horrek badauka bere interesa eta hor agertzen da».

«Neu —esplikatzan du— beti izan naiz oso kritikoa posizio marxista-leninista ofizialekin, baina orduan, nire argumentuak eman beharrean, liburu honetan egin dudana da garai hartan irakurtzen nituen autore nagusiak aipatu —Russel edo Sartre, esate baterako— eta azaldu nola zabalitzen ziren orduan euren ideiak».

Bere adinek abertzaleen harriera positiboa espero du Txillardegik, baina, honetan ez du zalantzarik, «hori baino inportanteagoa da, nire ustez, gazte



Txillardegik bere kontzientzia abertzaleari buruzko datuak ematen ditu.

Jon URBE

jendeak eta garai hura ezagutu ez duen jendeak ezagutzea gauza horiek». Betiko borroka dela, dio, zeren eta historia normalean «partidua irabazi dutenen aldetik» egiten da. Ez da bere kasua, jakina, eta alde horretatik ere inportantetzat jotzen du berak egindako lana.

Perspektiba apur bat

Ezker abertzalearen artean, jende gehienek begi onez ikusiko duelakoan dago, batzuk ez, baina hori normala da eta ere gehiago: «horrek ez du ezer kolokan jaritzen, ez du inolako arriskurik sartzen, garbi jokatzan baldin bada». Berak, dagokion aldetik,

ez du ezer izkatu bere liburuan: «Nik kontatzen dut, nere ustez, gauzak nola gertatu diren, txostenak hor daude bere osoan eta jendeak aterako ditu ondorioak». «Euskal Herria helburu», beraz, hortxe dago, egileak nahi duen erara. Bera gelditzen den unetik hona gauza anitz gertatu dira eta baliteke egunen batean berak kontatzea; edo beste batek, oraindino ez daki. «Hortik aurrera —dio berak— beste lan bat egin daitekeela pentsatzen dut, baina errazago da, eta jende askok izan dezake datuak lortzeko posibilitaterik». Ezagutzen ez diren parteak, beraz, kontatu nahi izan ditu, «bati baino gehia-

gori perspektiba apur bat emateko asmoz».

Momentu txar batean sartuta bagaude ere, ez da gure herriak sufritu behar izan duen bakarra —beste asko izan dira lehenago— eta Txillardegiren oraingo kezka bat zera da: «PNV-ren espagnolizazioa eta saldukeria eta, begi bistan daude ikusi nahi dutenarentzat; problema da gure jendea noiz esnatuko den. Hau karlismo zaharren errepeticioa da eta nik ez dakit noiz konturatuko den jendea». Zentzu horretan, dio, egin du bere liburua. «Pentsatzen dudalako lagunduko duela hemengo borroka argitzen eta, batez ere, ezker abertzaleari buruz kontatzen diren ipuinak desenmaskaratzan».

Sastre se pregunta «¿Dónde estoy yo?»

■ Su último libro es una recopilación de artículos.

DURANGO
A. ERENAGA

Alfonso Sastre ha recopilado artículos que ha publicado en diversos medios de comunicación en los últimos treinta años, los ha vertebrado de forma que casi realiza una radiografía sobre su persona y los ha lanzado con una pregunta en forma de libro. «¿Dónde estoy yo», una especie de «ensayo personal» editado por Hiru, ha sido una de las novedades de la Feria y del Libro Vasco de Durango. Hiru está sacando a la luz, además, la obra completa de este escritor.

Asuntos como la tortura, la violencia, la caída del «socialismo real» o la posmodernidad forman

los diferentes bloques que ha seleccionado Sastre, debido a que «casi todos ellos se refieren a posiciones sobre temas muy importantes objetivamente, con los que, además, uno define su propia posición», según explicó.


Evolución

Considerado uno de los mejores autores teatrales del Estado y con un Premio Nacional de Literatura a sus espaldas, Alfonso Sastre sigue siendo un hombre humilde. «Este tipo de libros no llama a leerlos desde principio a fin —apuntó—, aunque si alguien se tomara la molestia de hacerlo y de comparar las diferentes etapas observaría cierta evolución, concretada en una mayor matización», apuntó.

Sastre, quien explicó que el vuelco hacia sus posiciones ac-

tuales se produjo en los años 60, agregó que «están conquistadas con mucho esfuerzo». Miembro de una generación «que creció en condiciones impenables», consideró que es «casi un milagro que muchos hayamos podido tomar las posiciones que tenemos hoy en día».

Este año no ha parado de viajar —este fin de semana estaba en Italia—, lo que le ha impedido concentrarse en su proyecto más inmediato, la segunda parte de su «Crítica a la imaginación», «Necrópolis», una novela fantástica que publicó en enero, no le ha dejado buen sabor de boca —la edición salió muy descuidada—, pero de lo que sí se muestra muy satisfecho es de «¿Dónde estás Ullume?», que ha sido llevada a los escenarios por la compañía teatral Eolo.



La editorial Hiru está editando la obra completa de Sastre.

EGIN